



## Aldarrikapenek kaleak hartu dituzte

Emakumeen Nazioarteko Egunean aldarrikapen ekintza ugarian parte hartu dute lasarteoriarrek / 8-9

## la urtebete olatu artean

Datozen egunetan urte bat beteko da pandemiak gure egunerokoa erabat irauli zuenetik / 2-4

**Trukelandia egitasmoa jarri dute martxan Ttakun KEK eta Lasarte-Oriako Udalak / 7**

**Irakurle Txokoari "ezinezkoa" egin zaio ikasturte honetako bertso-afari literarioa antolatzea / 10**

**Errepideko denboraldia hasi dute Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kirolariek / 12**

**Urrezko bost domina eta zilarrezko bi ekarri dituzte Lasarte-Oriara Buruntzaldea IKTko igerilariek / 11**

txintxarri

Hurrengo  
**TXINTXARRI**  
paperean  
**martxoaren 26an**  
argitaratuko dugu

Bitartean, jarraitu herriko albisteak:  
[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)



**EAJ-PNVk iragarri du 2021eko udal-aurrekontuen aldeko bozka emango duela ezohiko bilkuran / 5**

**AEKren 'Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!' dinamika Lasarte-Oriara ere iritsi da / 6**

**Trasteleku eta gordelekuak alokairua Urnietan**

TRASTELEKUAK

**44€**

2 m<sup>2</sup> / BEZa barne

GORDELEKUAK

**97€**

5 m<sup>2</sup> / BEZa barne


**barnE**

**605713127**

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA  
Bulegoa: Muebles Iturbe  
[barne.eus](http://barne.eus)

## Lasarte-Orian erregistratutako kasuak, hilabetez hilabete

txintxarri



Iazko martxotik aurtengora arte, 2020ko azaroa izan da intzidentzia gehieneko hilabetea Lasarte-Orian, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuen arabera. 2021eko martxoko datuak 10era artekoak dira. TXINTXARRI/FLOURISH

## Txintxarri

2020ko martxoaren 13an argitaratu genuen COVID-19ak gure egunerokoa erabat aldatu aurreko azken zenbakia, ostiralarekin. EAEn egun horretan, eta estatu osoan hurrengoan, larrialdi-egoera ezarri zuten agintariek, eta 15etik aurrera gure etxeetan konfinatuta egon behar genuela agindu, bi asterako hasiera batean, eta denbora dezente gehiago azkenean, maiatzean neurrien arintze mailakaturik hasi zen arte, eta ekain hasieran *normaltasun berria* delako horretara iritsi arte. Iazko martxotik oldartuta zegoen itsasoa baretu zela zirudien, baina olatu handiak izan dira ikasturte honetan ere, bigarrena eta hirugarrena, udazkenean eta neguan; uhin artean igeri egiten ari gara, neurri batzuk ikasterako beste batzuk barneratzen, *normaltasuna* zer den ahazteraino, eta aurreko urteko martxoaren iritsi aurretik ezagutzen genuen bizimodua noiz itzuliko zain. Bitartean, txertoak jasotzen hasi dira zenbait kolektibo, agintariek iragarri baino errotimotela goan.

2020ko martxoaren 13an argitaratu genuen pandemiaren aurreko azken aldizkaria, eta, geroztik, bizi izan ditugu hainbat gauza: osasun-egoerak eraginda paperezko edizioa zenbait astez eteteko erabakia, telelana, eskaintza informatiboa moldatu beharra, aldizkari digitalak, berriz ere TXINTXARRI paperean banatzera buelta, herriari bizi ematen dioten ekintza ugari bertan behera geratu

# Olatu artean igeri egiten

2020 martxotik 2021 egora, larrialdi-egoera eta etxeko konfinamendua ezarri eta ia urtebetera, COVID-19ak Lasarte-Orian izan duen bilakaera aztertu du TXINTXARRI-K. Datu ofizialen arabera, 1.266 herritar kutsatu dira, ehun biztanletik sei pasatxo

direla ikustea, herritarreko egoera berrira moldatzeko egin dituzten ahaleginen berri ematea, testigantzak jasotzea, idazten ditugun artikulu gehienetan –denetan ez esatearren– *koronabirusa* hitza erabiltzea... Martxo erdialdeko egun hauetan, urte bat beteko da gaur-gaurkoz bizitzen jarraitzen dugun pandemiak gizartearen egunerokoa goitik behera irauli zuenetik. Alde batetik, 365 egun horiek amaiezinak izan direla sentitzen dugu, eta, bestetik, hilabeteak azkar batean joan direla iruditzen zaigu. Sentipen arraroa da, COVID-

**LASARTE-ORIAKO KORONABIRUS KASUEN %21,8 IAZKO AZAROAN ATZEMAN ZITUEN OSAKIDETZAK**

19ak eragin dituen horietatik guztietatik beste bat: badirudi atzo bertan eguneratu genituela datu epidemiologikoak aurreko aldiz! Behin bakarrik ez, sarritan idatzi ditugu gisa horretako albisteak: egunero-egunero jarraitu ditugu zifrak, datuak, portzentajeak... Ia urtebeteko bilakaera hori jaso dugu erreportaje honetan.

**1.266 kutsatze iazko martxotik** Euskal Autonomia Erkidegoko hedabide asko eta askoren gisan, TXINTXARRI-k erabiltzen ditu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak astean zehar argitaratzen dituen datu epidemiologikoak. Horiek eskuetan hartuta, eta egunez eguneko jarraipena eginda, 2020ko martxoaren 18tik aurtengo martxoaren 10era arte 1.266 lasarteoriatar kutsatu ditu COVID-19ak, herrian bizi diren biztanle

guztien %6,65. Bestela esanda, ehunetik sei herritar pasatxo –Eusko Jaurlaritzaren OpenData atariaren arabera, 19.045 pertsona bizi dira gurean–.

Datu ofizialen arabera, hamazazpi herritar zendu dira koronabirusagatik iazko martxotik. Horrek esan nahi du gaixo egon diren lasarteoriatar ia guztiak osatu egin direla, edo horretarako bidean direla, behintzat; COVID-19a pairatu dutenen %98,7, hain justu.

Arestian esan bezala, Lasarte-Orian 1.266 pertsona kutsatu ditu SARS-CoV-2 birusak. Ehunetik

**HERRIAN ERREGISTRATU DIREN POSITIBOEN %86,5 20-21 IKASTURTEAN ZENBATU DITUZTE**

hogei pasatxo, gaixoen %21,8, azaroan kutsatu dira, bigarren olatuaren oldarraldi betean. Orain arteko zifrak erreferentziatzat hartuta, herrian, azaroa izan da COVID-19ak intzidentzia gehien izan duen hilabetea. 2020ko martxoaren 18tik –orduan argitaratu zuen Osasun Sailak aurreko txostena, pandemiari buruzko datuekin– 2021eko martxoaren 10era arte, ia hamahiru hilabete pasa dira. Azaroan soilik ez, beste bitan ere detektatu ditu Osakidetza 200 kasu edo gehiago Lasarte-Orian: iazko urrian eta aurtengo urtarrilean, 218 eta 215 kutsatze, hurrenez hurren.


## Kasu gehienak, irailetik aurrera

2020ko ikasturteko azkeneko hilabeteetan, martxotik abuztura, 170 kutsatze erregistratu zituen Osakidetza Lasarte-Orian, aurtengo martxoaren 10era arte zenbatu direnen %13,5. COVID-19a, beraz, dezente gehiago hedatu zen iazko irailetik aurrera, orri hau ilustratzen duen grafikoan ikus daitekeenez. Guztira, 1.070 positibo diagnostikatu dira herrian 2020-2021 ikasturtean; gehienak, udazkenean, irail erdialdetik abendu erdialdera.

PCRak eta antigenoen probak egiten ditu Osakidetza, kutsatze berriak atzemateko asmoz. 2020ko irailera arte, Lasarte-Oriako Antonio Mercero gunean egiten ziren, eta, orduz geroztik testak ugaritu egin zirenez, Loidibarren pilotalekua erabiltzen hasi ziren,

## Lasarte-Oriako intzidentzia-tasaren bilakaera 2021ean

txintxarri



Hirugarren olatuak urtarril amaieran eta otsail hasieran jo zuen gogorren Lasarte-Orian. Intzidentzia-tasa metatuak 803,36koak izatera iritsi ziren, otsailaren 2an eta 3an. TXINTXARRI/FLOURISH

gaur egunera arte. Koronabirusa segun eta zenbateraino oldartu, luzeagoak edo laburragoak izan dira bertako ilarak. Azken asteetatik hona, motzagoak izan dira, kasuak murriztu eta birusaren transmisioa gutxitu ahala.

**Intzidentzia-tasa**

Tartekiko hitz hori, *intzidentzia-tasa*, izan da koronabirusaren hiztegian sartu denetako bat; bolo-bolo ibili izan dute agintariek eta herritarrek, COVID-19aren hedapena gutxitzen saiatzeko neurriak adierazle horren arabera gehiago gogortzea iritsi arte –ostalaritzaren itxiera, eta Eskola Kirola etetea, esate baterako–. Tasa horren bidez neurtzen da herri bakoitzean zenbat kasu zenbatu diren 100.000 biztanleko azken hamalau egunetan, eta batez bestekoa egiten da. 0-60 artekoa bada kopuru hori, udalerrira eremu berdean dago; 60tik 299ra artekoa bada, horian; 300etik 499ra artekoa bada, laranjan; eta, 500ekoa edo handiagoa bada, gorrian.

Iazko urri erdialdean ekin zion Eusko Jaurlaritzak tasa horiek koloreka sailkatzeari txosten epidemiologikoetako atal hori semaforoak bezala erakusteari. Eremu gorrian urriaren 25ean sartu ginen aurrenekoz, eta hilabetez izan genuen 500 kasu edo gehiagoko intzidentzia-tasa metatua. 2021. urte hasierara arte

etsi genion beheranzko joerari; urtarrilaren 6an erregistratu zen ordura arteko tasa baxuena herrian, 110,27koa. Goranzko bidea hartu genuen berriro, hirugarren olatuaren puntan egoteraino –otsailaren 2an eta 3an 803,36ko batez bestekoa izatera iritsi ginen, nahiz eta kopuru altuena iazko azaroaren 11koa izan, 1.009,30–.

Gaur-gaurkoz, berriz ere jaisteko dinamikan gaude, eta eremu berdean sartu gara aurrenekoz, martxoaren 8an, 52,51ko tasarekin. Bi egun beranduago, ordea, horira igaro gara berriro, baina 60ko mugatik gertu gaude (78,76).

**Eskualdeko egoera**

Lasarte-Oria da Beterrri-Buruntza eskualdea osatzen duen herrietako bat. Beste bostak, hauek: Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil. Gurean gertatu bezala, azken asteetan koronabirusaren intzidentzia nabarmen jaitsi da udalerrira horietan. Usurbil eremu berdean dago, eta horian beste guztiak, baina berdetik gertuago laranjatik baino. Martxoaren 10eko datuak izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen

**LASARTE-ORIAKO INTZIDENTZIA-TASAK AZAROAREN 11N JO ZUEN GOIA: 1.009,30 KASU, BATEZ BESTE**

azkenak edizioa itxi aurretik, asteazkenekoak, eta, horien arabera, eskualdean hemezortzi kasu atzeman dituzte: bosna Andoainen, Hernanin eta Lasarte-Orian; bi Urnietan; eta bat Astigarragan. EAE erkidegoko zifrak, berriz, hauek izan dira: 369 kasu, horietatik 106 Gipuzkoan. 8.571 PCR eta antigenoen proba egin dituzte Osakidetzako beharginek kutsatze berriak atzemateko; positibotasun-tasa %4,3 izan da. OME Osasunaren Munduko Erakundearen arabera, pandemia bat "kontrolpean" dagoela esan ahal izateko, portzentaje horrek %5 baino baxuagoa behar du.

Aste Santuko oporraldia ate-joka dago, eta ikusteke dago COVID-19a berriz ere hedatuko den, joerak berdin jarraituko duen edo are gehiago apalduko den. LABI aholku batzordearen azken bilera eta gero, Eusko Jaurlaritzak iragarri zuen itxiera perimetrala udalerrira-mailakoa izatetik erkidego-mailakoa izatera igaro zela. Asteartean sartu zen neurri hori indarrean, martxoak 9. Besteetan, oraingoz, aldaketarik ez: lau pertsonara arteko bilerak, ordutegi eta edukiera murriztuak merkatarientzat, 22:00etatik 06:00etara arteko etxeratze-agindua... Murrizketak ikasi eta ahaztearen prozesu hori luzerako etorri dela dirudi. Bitartean, olatu artean igeri egiten ari gara.

**COVID-19a, zenbakitan**

la urtebete daramatza TXINTXARRI-k koronabirusa herrian izaten ari den bilakaera aztertzen. Hona hemen zenbait datu esanguratsu:

- **1.266** kutsatze herrian (martxoaren 10era arte).
- **%6,65** kutsatuen tasa Lasarte-Orian (19.045 biztanle bizi dira herrian).
- **17** lasarteoriatar zendu dira COVID-19a dela kausa.
- **275** kasu atzeman ziren 2020ko azaroan herrian. Hori izan da, orain arte, intzidentzia gehieneko hilabetea.

Informazio gehiago, [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atariko *Koronabirusa* atalean

ITURRIAK: ELISKO JAURLARITZAKO OSASUN SALA ETA LASARTE-ORIAN UDALA



**MAiTE**  
ESTETIKA ARETOA

**Lasar aitaren eguna da eta ez dakizu zer oparitu?**

Zatoz eta opari txartela prestatuko dizugu

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria  
• Tel. 943 37 08 45



# Txertatu diren herritarrekin hizketan



## Manu Risquez. Osasun Larrialdietako Teknikaria.



COVID-19ak eragindako pandemiari aurre hartzeko lan eta lan, urte gogorra igaro du Risquezek. Otsailaren 26an jaso zuen txertoa Osasun Larrialdietako Teknikariak, baina, azaldu du protesta askoren ondoren hasi direla txertoa jasotzen. Osasun langileek bizi duten eguneroko "konplexuan" lehen lerroan lanean aritzea fisikoki zein mentalki "oso nekeza" izaten ari dela azpimarratu du herritarrek, eta txertoak zama hori arintzen lagundu diola gaineratu du: "Aukera ematen digu arnas pixka bat hartu eta birusari aurre hartzeko lanetan jarraitzeko". Pfizer-BioNTech txertoaren lehen dosia jaso du Risquezek eta ondoez orokorra, buruko zein besoko mina sentitu ditu.

## David Rodriguez. Osasun-garraio Teknikaria.



Osasun-garraio Teknikariak martxoaren 5erako greba-deialdia egin zuten arren, bertan behera utzi dute azkenean, txertoak jasotzen hasi direlako. "Hori izan da gure borroka; koronabirusa duten pertsonak garraiatzen ditugu eta urgentzia batera joan behar dugunean ez dakigu zerekin egingo dugun topo. Lehen lerroan ari gara lanean, eta, orain arte, ez gaituzte hala ariko bagina bezala kontuan hartu". Otsailaren 27an jaso zuen Rodriguezek txertoa eta azaldu duenez, besoko min apur bat besterik ez du izan. Argi dauka une honetan pandemiari aurre hartzeko "irtenbide bakarra" txertoa jartzea dela, hortaz, txertoa hartzeko deia egin die lasarteoriatarrei.

## Uxue Altuna. Irakaslea

"Poza eta urduritasuna" sentitu zuen txertoa jasotzeko hitzordua zehazteko deia jaso zuenean. Imajina dezake txertoa merkaturatu dutenerako "eraginkorra eta ziurra" izango dela, baina txerto berri bat izateak zenbait beldur ere sortzen dizkio: "Gerora zein sorpresa etor daitezkeen pentsatu izan dut". Nafarroako ikastetxe batean ari da lanean eta lurralde hartan jaso behar izan du txertoa; "batere erakargarria" egin ez zaion leku batean: "Balioanitzeko eraikin batean txertatu gaituzte; hotza sentitu dut lekua". Txertoa jaso eta berehala besoko eremu hori sentsibilizatorik gabe geratu izan balitzaio bezala sentitu zuen, baina gerora, ez du ondoezik sentitu; nekea bakarrik. Bigarren dosia maiatzean jasoko du.



## Marijo Izagirre. Landaberri ikastetxeko idazkaria



Txertoa jartzeko bi baldintza jarri dizkio Osakidetza Landaberriko irakasle taldeari; 55 urte baino gutxiago edukitzea eta ikastetxean maskararik erabiltzen ez duten ikasleekin lanean aritzea. Horrela, Haur Hezkuntzako irakasleen zerrenda bat osatu dute, horien artean zegoen Marijo Izagirre Landaberri ikastetxeko idazkaria. Larunbatean txertatu zuten eta igandea etxean pasa zuela kontatu du; atsedenean, "gorputz txarrari" aurre hartu nahian. Ikastetxearen eguneroko martxan ez du gehiegi eragin irakasleen txertaketa prozesuak. Irakasle gehienak lanera itzuli ziren astelehenean.

## Maitane Olano. Erizaina



COVID-19a hautemateko probak egiten ari da lanean urriaz geroztik. Erizaina da eta osasun langileei txertoak jartzen hasi behar zirela jakin zuenean, "segurtasun eza eta beldur pixka bat" sentitu zuela aitortu du, baina txerto bat merkaturatzen dutenerako nahiko ikerketa pasatzen dituelaketa, segurua dela pentsatuz jartzea erabaki du. Osasun langile izanik, Pfizer-BioNTech txertoa jaso du, eta ohiko ondoezak sentitu dituen arren (gripe sentsazioa eta buruko mina) gaur-gaurkoz ondo aurkitzen da. Txertoa jartzea garrantzitsua dela uste du, bizitzen ari garen egoera gainditu ahal izateko irtenbidea delako eta ospitaleetako ZIUko kolapso egoerak saihesteko.

## Miriam Tolosa. Fisioterapeuta



Egun batean deia jaso, eta hurrengoan txertatu da Miriam Tolosa. Ez du denbora gehiegi izan aukera ezberdinetan pentsatzeko; "sorpresaz" harrapatu zuela aitortu du. "Herritar guztiak batera, beranduxeago" txertatzea espero zuen eta, bat-batean, egun batetik bestera txertoa jartzeko hitzordua eman ziotenean, "beldur eta segurtasun eza" pixka bat sentitu zuen. Argi zuen, ordea, txertoa jarri, jarriko zuela: "Niregatik soilik balitz, agian ez nuke jarriko, baina kolektiboan pentsatu behar da, gizarte osoan. Nik gainera, adinekoekin egiten dut lan, hortaz, zer esanik ez". Besoko min apur bat besterik ez du sentitu, jaso duen Pfizer-BioNTechen lehen dosiarekin.

# Udal-aurrekontuak babestuko ditu EAJ-PNVk

Alderdi jeltzaleak 2021eko udal-aurrekontuen alde bozkatuko du martxoaren 15eko ezohiko udalbatzarrean. "Lasarte-Oriako Udalarari egonkortasuna eskaini nahi diogu". EAJ-PNVk esan du "urteetan" eskatu izan dituen proposamenak biltzen direla zirriborroan

## Txintxarri

Udal-korporazioko kideek ezohiko bilkura egingo dute martxoaren 15ean, astelehenarekin. Udal Gobernuak 2021eko aurrekontuak jarriko ditu mahai gainean, eta, eztabaidatu ostean, bozkatu egingo da. EAJ-PNVk aurreratu duenez, babestu egingo du egitasmoa, eta aldeko bozka eman. "Lasarte-Oriako Udalarari egonkortasuna behar duelakoan gaude; erakutsi nahi dugu politikak zubiak eraikitzeke balio behar duela, eta ezberdinen arteko indarrak batu behar direla". Prentsaurrekoa eskaini dute Jon Antxordokik, Estitxu



Ezker-eskuin: Boris Nogales, Jon Antxordoki eta Estitxu Alkorta. TXINTXARRI

Alkortak eta Boris Nogalesek, herriko udal-taldeko hiru kideek.

Antxordokik aurreratu duenez, 2021eko udal-aurrekontuetan eutsi egingo zaie 2020an zehar COVID-19aren pandemiari aurre egiteko udal-inbertsioei. "Beharrezkoa balitz, 200.000 euro gehiago bideratuko lirarteke horretara", gehitu du. Gizarte-larrialdietarako diru-partidak areagotu egingo dira, eta baita irabazi asmorik gabeko elkarteentzat direnak. "Laguntza horien guztien batura milioi bat eurokoa da".

## Irakurketa "positiboa"

EAJ-PNVk inbertsioen atalari buruzko irakurketa "positiboa" egin du: "Hirigintza- eta kirol-azpiegitura estrategikoen eremuetan sartu dira gure proposamenak; gure ustez, oso garrantzitsuak dira etorkizuneko Lasarte-Oria eraikitzeke". Inbertsio horietako batzuk izango dira Atsopakarko kirol-gunekoa (4.200.000 euro) eta kiroldegi berrikoa (15.000.000 euro). "2015eko udal-hauteskundeetatik aurrera proposatu izan ditugu". Horrez gain, Oztaran-Arranbide berriz urbanizatzea aztertzeke

diru-partida bat sartu dute, 100.000 eurokoa.

Herriko eremuen azterketekin jarraituz, Manuel Lekuona Kultur Etxeko 1. eta 2. solairuetako "espazioak eta baliabideak optimizatzea" helburu duen ikerketa-egitasmoa egiteko konpromisoa erdietsi du alderdi jeltzaleak. "Elkarteentzako aretoak handitzea da asmoa". Ikastetxeetan 2023. urtera arte egin beharreko inbertsioen plangintza bat ere sartuko dute udal-aurrekontuetan. "Milioi bat euro gehiagoko inbertsioa da, gutxi gorabehera". Alderdi jeltzaleak nabarmendu du 2019ko hauteskunde-programan sartu zituen bi esku-hartze: Landaberriko espazio estaliak handitu ahal izateko karpa bat erostea, eta Sasoeta eraikerako sarbide berriaren proiektua.

Arestian aipatutako inbertsio horiek "datozen hiru urteetan" egingo direla zehaztu dute jeltzaleek. "Behin baino gehiagotan eskatu ditugu legegintzaldirako programa eta ikastetxeetarako inbertsio-planak sortzea eta, hein handi batean, proposamen horiek 2021eko aurrekontuetan sartu dira".

## Erribera kalea berriro urbanizatzeke egitasmoa

Udalak eta Endarak aurreproiektua aurkeztu die bizilagunei; ekarpenak egin ditzakete hilaren 16ra arte, asteartearrekin

## Txintxarri

Erribera Kalea berrurbanizatzea da Lasarte-Oriako Udalarari eskuarrean duen egitasmoetako bat. Gunea bisitatutakoetan ikusitakoekin eta jasotako iradokizunekin, aurreproiektu bat egin, eta han bizi diren bizilagunei erakutsi diete Agustin Valdivia alkateak eta Ibon Rosales udal-teknikariak, eta baita Endarako arkitekto Eduardo Lopezek ere -proiektua idazteko sustatutako lehiaketa publikoa esleitu dio udalak enpresa horri-. Herritarrek ekarpenak egin ahal izateko martxoaren 16ra arte, asteartearrekin, egun hori barne. Formulario bat bete, eta Udal Erregistroan aurkeztu behar dute; beharrezkoa da 943 37 60 55 telefonora deitu eta aurrez hitzordua hartzea. Esteka honetan ere egin dezakete tramite

hori: <https://uzt.gipuzkoa.eus/aurrehitzordua/083/aa14aInit.jsp?lang=eu>.

Erribera kalean lanak jasoko dituen behin betiko txostena hiru fasetan osatuko dute udalak eta Endarak. Aurrenekoa egin dute, aurreproiektua. Bizilagunei aurkeztu, eta haien ekarpenak jaso nahi dituzte, eta, ahal dela, proiektuan txerta daitezkeen aukera edo zuzenketak bildu. Hirugarren eta azken fasean, bigarrenean jasotakoa aztertuko dute idazketa-taldeak eta udal-sailek. Horren ostean, behin betiko txostena egingo dute.

## Proiektuaren helburuak

Erribera kalean esku hartu nahi du udalak, honako helburu hauek bete ahal izateko: ibaiertzeko pasealekua eta bidegorria egitea; proiektuaren eremua Lasarte-Oriako hiri-



Martxo hasieran aurkeztu dute udalak eta Endarak aurreproiektua. L-O UDALA

egituran txertatzea; kale horretako segurtasun-baldintzak hobetzea, bereziki, generoaren ikuspegitik; guneko urbanizazio-baldintzak hobetzea; eta arkupean azpiko lokaletako hezetan-arazoak konpontzea.

Arestian esan bezala, Erriberara zenbait bisita egin dituzte udalak eta Endarak. Horietan, ikusi dute eremu hori "segurtasun-gabezia handikoa" dela. "Arkupean espazioa irteerarik

gabeko kale baten moduan eratzen da, eta, horren ondorioz, herritik eta haren ibilbideetatik eta bizitzatik kanpo geratzen da". Erriberan bizi diren bizilagunak ibiltzen dira bertatik, eta gune hori "igarobide soil gisa" erabiltzen dute.

Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, esteka honetan sar daiteke: <http://www.lasarte-oria.eus/eu/-/erribera-kalea-aurreproiektua>.



Saenz eta Cano, bidegorrian. PP GIPUZKOA

## Emendakina, onartuta

### Txintxarri

Gipuzkoako PPK adierazi duenez, lurralde horretako foru aldundiak onartu egin du alderdiak 2021eko aurrekontuei jarritako emendakin bat, Lasarte-Oria eta Usurbil lotuko dituen bidegorriaren zatia eraikitzeke. Proiektua egiteko 50.000 euroko partida bat sartuko du, eta lanak 2022an hasiko dira, Gipuzkoako PPrek ordezkari Juan Carlos Cano eta Alejandro Saenz araberak. "Atsopakarreko kirol-guneko proiektua hauspotzeko balioko du, bi herriak lotuko dituen bidegorriak lotuta, kirola egiteko eremu horrek harmailak izango dituelako".

# Gizartea euskalduntzen jarraitzeko bultzada

'Bultza euskaltegiak! Bultza euskara' dinamika jarri du martxan AEK-k, euskalduntze-mugimenduaren garrantzia aurten ere ikusarazteko. 22. Korrika amaitzekoa zen egun berean, martxoaren 28an, ekitaldiak egingo dituzte herriz herri, baita Lasarte-Orian ere

## Txintxarri

2021. urteko martxoak berezia izan behar zuen, besteak beste, zoro zoragarri ugari euskararen aldeko kilometroak egingo zituztelako Euskal Herri osoan barrena. COVID-19aren eraginez, ordea, antolatzaileak, AEK-k, urtebete atzeratzea erabaki du, horrelako ekitaldi jendetsu bat egitea posible izango delakoan.

Nahi eta espero baino modu xumeagoan, baina aurten ere euskalduntze-mugimenduaren garrantzia azaleratu nahi du AEK-k, eta, horretarako, *Bultza euskaltegiak! Bultza euskara* izeneko dinamika jarri du martxan. "Euskal Herrian bizi diren pertsonen %55 erdalduna da. Berdintasunean oinarritutako jendartea amets badugu, argi dago herritar helduen euskalduntzea behar dugula, eta, horretarako, euskaltegi sendoak behar ditugu", adierazi du AEK-k. Ikasturte hau pandemiak baldintzatu badu ere, prozesua "bide onetik" doala esan du, urtero-urtero 45.000 pertsonatik gora ari baitira bere euskaltegiaren ikasten. Hala ere, azpimarratu du finantzaketa ez dela aski "aurrerapausoak" eman diren arren: "EAE, Nafarroa eta Iparraldeko Euskal Herriko administrazioek euskara



'Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!' kanpaina jarri du martxan AEK-k. AEK

euskaltegiaren ikasteari bultzada estrategikoa eman behar diotela uste dugu".

## Hiru ardatz

Administrazioei gutunak, ekarpen ekonomikoak eta herritarren bultzada. Hiru ardatz horietan oinarritzen da AEK-k aurkeztu duen dinamika. "Duela 55 urte, Rikardo Arregik bidalitako gutunean, argi islatu zen helduen euskalduntzea ezinbestekoa zela, hizkuntzaren biziberritze osoa lortzeko. Bide

oparo eta nekaezina egin dugu: ikerketen arabera, jendarteak irabazi dituen hiztun berrietatik heren bat euskaltegiatik atera da. Hala ere, bistan da buru-belarri segitu behar dugula lanean euskaltegiok".

*Bultza euskaltegiak! Bultza euskara* egitasmoaren baitan, Euskal Herriko administrazio nagusiei gutun bat bidaliko die AEK-k: jasoko ditu hurrengo urteetan nolako baldintzak izan behar dituen mugimendu horrek. Horrekin batera, mota guztietako

eragileekin lan-ildo amankomun bat jorratzen ari da. Helburua da talde, elkarte eta bestelakoek akuilu-lana egitea beren eremuetan. "Gobernuek eta herritarrek jokatzeko duten rolaz gain, eragileek ere paper garrantzitsua dute".

AEK-k adierazi duenez, Korrika atzeratu behar izanak "zuloa" eragin dio aurrekontuetan. Horri banku bidezko finantzaketaren bitartez erantzun dio erakundeak. "Zorpetze horri ere aurre egin beharko diogu, eta herritarren sostengua nahi dugu: aurten bultzada txiki bat, eta hurrengo ikasturtean izango den Korrikak babes erraldoia jasoko duelakoan gaude, benetan behar dugu eta". Diru-laguntza horiek AEKren web-orriaren bitartez egin daitezke, ondoko esteka honetan: <https://www.aek.eus/ekarpenak/>. Horrez gain, Korrikaren katiluak salgai jarri dituzte herriz herriko euskaltegiaren, baita Lasarte-Oriakoan ere, bost eurotan.

## Lasarte-Oriako ekitaldia

Hiru ardatzetako bat, esan bezala, herritarren bultzada izango da. Horretarako, herriz herri ekitaldiak antolatuko ditu AEK-k, baita Lasarte-Orian ere, martxoaren 28an, igandez; pandemiagatik ez balitz, egun horretan amaitzekoa zen 22. Korrika.

Martxoaren 28an, beraz, Okendo plazan, 12:00etan. Horra hor agendan apuntatu beharreko hitzordua. Lasarte-Oriako AEK-k zehaztu duenez, indarrean dauden osasun-neurriak beteko dira, eta mugatua izango da edukiera: ezingo dira ehun pertsona baino gehiago sartu plazan jarriko duten eremura. Ordu erdikoa izango da ekitaldia,

12:30ak arte. Erik Arzallusek gidatuko du; "aurkezpen antzerkitua" egingo duela zehaztu du antolatzaileak. Eguerdian hasiko da ekitaldia, esan bezala, eta Arzallusek aurkeztu ahala jarriko dira martxan parte-hartzaileak. Tomax Arrutik eta Pontxo Moralesek txalaparta-doinuekin hasiko dute ikuskizuna. Lekukoa Earra! bertso-eskolako kideek hartuko dute, eta baita Ione Zabala artistak ere: ekitaldia egin ahala, mural bat margotuko du; AEKri buruzko zenbait elementu hartu, eta irudimena dantzan jarriko du.

AEK-k mezu bat prestatuko du martxoaren 28ko ekitaldiei begira. Lasarte-Orian, Maider Segurola kazetaria arduratuko da hori irakurtzeaz. Bukatu eta berehala, Arzallusek abesten jarriko ditu Okendo plazara joandakoak. Kantua ezagun bat izango da: *Euskal Herrian euskaraz*. Hori eta gero, udaletxeko balkoian egongo den argazkilaria begiratuko diote ikus-entzuleek, hark talde-argazki dotore bat atera dezan, Zabalak ekitaldian zehar egindako murala alboan dutela. Bi aste eskas falta dira horretarako.

**AEK: "HIZTUN BERRIETATIK HEREN BAT EUSKALTEGIETATIK ATERA DA"**

**OKENDON IZANGO DA HERRIKO EKITALDIA, MARTXOKO AZKEN IGANDEAN, HILAK 28, 12:00ETAN**



**MARTXOAK 4 - 24**  
Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

# Plateretik baratzerara

[errigora.eus](http://errigora.eus)



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra -5 litroka eta arzoa, pasta eta kontserbak -12 ontzika- euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



# Familien arteko transmisioa indartzeko

Ttakun KEren eta Lasarte-Oriako Udalaren Gurasolandia egitasmoan parte hartzen ari diren herritarrek saio berezi bat egingo dute hilabetearen behin, ezagutzak partekatzen: Trukelandia. Izena emateko epea martxoaren 18ra arte dago zabalik, ostegunarekin

## Txintxarri

Porrotzek eta Maitane Rebek Trukelandia ekimenaren nondik norakoak azaldu dizkiete Ttakun Kultur Elkartearen eta Lasarte-Oriako Udalaren Gurasoleku proiektuaren barruko Gurasolandia egitasmoan parte hartzen duten familiei. Hilabetearen behin gauzatuko duten jardueran, partaideek zerbait irakatsiko diote elkarri. Aukera posibleetako batzuk erakutsi zizkieten martxoaren 7an Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan egindako aurkezpen-ekitaldian.

Porrotzek eta Josu Txapartegi Txapas kultur etxeko oholtza gainera irten zirenerako, areto nagusian haur asko zain zituen pailazo ileuridinak. Dantzak, musikak eta umoreak huts egin ez bazuten ere, joan den asteko igandekoa ez zen ohiko ikuskizuna izan, eta alboan betiko kideak beharrean, aski ezaguna duen lagun bat izan zuen: Gurasolandia Maitane Rebe. Biek elkarrekin Trukelandiaren nondik norakoak argitu zizkieten bertaratutakoek. Baina horren aurretik, "beroketa" pixka bat egin zuten.

*Epo Itai Tai Ye* eta *Para bara* kantatu eta dantzatu zuten elkarrekin oholtza gainean eta besaulkietan zeudenek gauza bera egin zuten, haurretako asko,

zutituta. Ondoren, Rebek Porrotzek Gurasolandia zer den azaldu zion, urtean zehar egin ohi dituzten ekimenetako argazkiak proiektatuta. Familiak hilabetearen behin elkartzean egiten dituzten askotariko jarduerak agertu ziren irudietan. Pailazoari oso interesgarria iruditu zitzaion kontatutakoa eta berriro dantza egiteko gogoia piztu zitzaion.

## Trukean oinarritutako egitasmoa

Bukatzean, Gurasolandia parte direnentzat prestatu duten proposamenaren berri eman zion Rebek pailazoari, eta bide batez, familiei: Trukelandia. Izenak berak adierazten duenez, trukean oinarritutako egitasmoa da. Hilabetearen behin, egitasmoetako hitzorduak baino bi aste geroago, modu autonomoan hiru familia elkartzeko, eta bakoitzak ezagutza bat partekatuko du besteekin. Irakatsiko duten hori, askotarikoa izan daiteke: errezetak, esperimenduak, abesti jolasak, ipuinak, eta abar.

Adibideekin dena hobe ulertzen denez, horixe egitea erabaki zuten aurkezleek. Besaulkietan zeuden artean boluntarioen laguntza eskatu eta hiru familiak zerbait irakatsi zioten gainerakoek. Lehenik, masaje-abestia egin zuten ama-alaba bikote batek, eta

Porrotzek, ikasteko gogoz, Txapasi egin zion masajea. Ondoren, besaulkitik ipuin bat irakurri zuen emakume batek eta agertokiko hirukotea antzeztan joan zen kontatutakoa. Azken proposamena, berriz, eskujolasa izan zen.

Trukelandia zer den barneratuta, pailazoak magia truko bat partekatu nahi izan zuen. Aulki baten gainean sagarra jarri, zapi batekin estali, eta gorputzeko zenbait txokotatik ateratako "hauts magikoekin" eta ikus-entzuleek bidalitakoekin desagerrarazi eta berriro agerrarazi zuen. Ikasi duela erakusteko, Rebe ere saiatu zen, baina lortu ere! Magia nahikoa ez zuen izan, antza, Porrotzek, beste dantza baten ondoren, kutxa bat hartu, eta Pirritxen panpin bat agerrarazi-desagerrarazi ibili baitzen. *Agurra* kantarekin heldu ziren aurkezpenaren amaierara. Talde argazkia egin eta familia bakoitzak opari bana jaso zuen joan aurretik.

Trukelandian parte hartzeko ezinbestekoa da Gurasolandian parte hartzea eta euskara ulertzea. Izena emateko epea hilaren 18a arte zabalik dago, ostegunarekin, 943 37 14 48 telefonoan edo [ttakun@ttakun.eus](mailto:ttakun@ttakun.eus) helbide elektronikoan.



Martxoaren 7ko ekitaldiko irudietako batzuk. TXINTXARRI

**Zure iritzia jakin nahi dugu!**

**INKESTA**

**[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)**

Internet bidez egin ezin edo nahi ez baduzu, jarri gurekin harremanetan; 688 68 35 10 telefonora deitu edo [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbidera idatzi.

# Aldarrikapen eguna

## Haur eta helduek Martxoaren 8ko ekintzetan parte hartu dute

Aldarrikapen ugari egin dituzte aste honetan Lasarte-Orian. Emakumeen Nazioarteko Eguna baliatu dute herritarrek kalera irten eta Martxoaren 8rako prestatu diren ekintza ezberdinetan parte hartzeko.

Asko izan dira egitaraua osatu duten ekintzak. Martxoaren 5ean, ostiralez, *Futbolistak eta printzesak* antzezlan ikusteko aukera izan zuten ikastetxeetako ikasleek, eta, hurrengo egunean, berriz, *Trabajos de interior* antzezlan ikustera gerturatu ziren helduak. Martxoaren 7an, igandez, aSUnak neska\* gazteen taldeko kideek tailerra ere egin zuten Mercero aretoan. Ekintza nagusiak, ordea, astelehenean, Martxoaren 8an izan ziren. Eguerdian, udalak deitutako elkarretaratzean bildu ziren Okendo plazan, eta arratsaldean ere izan ziren bi ekitaldi. Kukuka antzerki eta dantza eskolak antzeztan labor bat eskaini zuen herriko plazan, eta hori amaituta, aSUnak taldeak deitutako manifestazioak hartu zituen herriko kaleak.

Asteartean etxeko txikiak Sorgina Pirulina ipuin-kontalariaren eskutik *Emakumeak kontu kontari...eta kantari!* ipuinaz gozatu ahal izan zuten, eta, asteazkenean, berriz, datorren urteko Martxoaren 8a iragarriko duen kartel irabazlearen berri eman zuten: Eneritz Odriozola Lopezek irabazi du lehen saria; bigarrena eta hirugarrena, berriz, Sandra eta Marta Rojo Azkune ahizpek.



'Trabajos de interior' antzezlanoeko une bat. TXINTXARRI



'Futbolariak eta printzesak' antzezlanoz gozatu ahal izan dute herriko ikastetxeetako ikasleek. TXINTXARRI



aSUnak neska\* gazteen taldeak igande goizean egindako tailerreko irudi bat. TXINTXARRI



Astelehen eguerdian, elkarretaratzean bildu dira udal ordezkari eta herritarrak. TXINTXARRI



Kukuka eskolako talde batek antzeztan bat eskaini zuen, manifestazioaren aurretik. TXINTXARRI





Borroka feministaren aldeko aldarriak eginez amaitu zuten antzezlanak Kukukako kideek.



Landaberri-Garaiakoetxeako jangelako langileek ere aldarria egin dute. TXINTXARRI



Okendo plazatik abiatu zute aSUnak neska\* gazteen taldeko kideek mobilizazioa. Kale Nagusia zeharkatu zuten geroago. TXINTXARRI



Herriko haurrak Sorgina Pirulinen ipuina entzuten. TXINTXARRI



Martxoaren 8ari buruzko kartel-lehiaketako sariak banatu dituzte. TXINTXARRI

## NEURE KABUZ



LIERNI REKONDO

## Beti ez gaude berdin

Asteartea. Kafe egin berria aurrean eta eginbideen zerrenda buruan; zaintza ardurak, laneko kontuak, unibertsitateko klaseak, bertso sariketa bat eta iritzia artikulua idatzi beharra. Goizeko zazpiak dira eta kolapsatu dut dagoeneko.

Beti ez nago (gaude) berdin. Batzuetan ez naiz indartsu sentitzen publikoki agertzeko edo sortzeko. Buruari kosta egiten zaio kontzentratzea eta sortzaile sena bidetik galdu dudala iruditzen zait. Eta zilegi da horrela sentitzea, edo zilegi izan beharko luke behintzat. Betiko lez, ordea, jokoan sartzen da autoepailea. Ez delako nahikoa bertso saio txukun xamar bat egitea edo erdipurdiko artikulua bat idaztea. Ez delako onargarria ekitaldi, sorkuntza proiektu edo halako proposamen bati ezetz esatea zure burua gaineztear ikusten duzulako. Oso tarte txikia dago autoexijentziatik autodestruktzioa, eta ez dira gutxi muga hori zeharkatu ditudan aldiak.

Nire burua zalantzan jartzen dudanetan, gauzak gestionatzeko zailtasunak ditudanetan, hor egoten dira beti. Hor daude goizeko zazpiretan artikulua inguruko mezuei erantzuteko prest dauden lagunak eta egindako bertso sorta bakoitzeko 30 borradoreak irakurri eta aztertuko dituztenak; munduko saiorik txarrena eginda ere Maialen Lujanbio sentiarazten nauten kuadrillakoak; Momentuko joera tremendista baretzen dutenak; bertsolaritzaren eta sorkuntzaren inguruko nire dramak entzuten dituztenak zertaz ari naizen ulertu gabe. Nigan nik baino gehiago sinesten duten lagunak, zaintzen nautenak. Ni naiz publikoki agertzen dena, baina, sortzaile edo pertsonaia publiko bakoitzaren atzean (alboan) jende asko dago.

Oihana, Aner, Haizea, Olatz, Ane, Sara, Alaitz, Intza, Alba... eskerririk asko. Ez da idatzi dudana artikulurik onena, baina beti ez gaude berdin.

# Bertso-saio literarioa antolatzea, "ezinezkoa"

Lasarte-Oriako irakurle txokoarentzat "ezinezkoa" izan da aurtengo bertso-afari literarioa antolatzea. Pandemiak eragindako egoera dela-eta, elkarte gastronomikoak itxita daude, eta kultur etxean egiten saiatu badira ere, baldintzak ezin dituzte taldearen gain hartu

## Txintxarri

Lasarte-Oriako irakurle txokoak pandemiak ezarritako neurri eta protokolo betez, normaltasunean ari da hileroko literatur saioak egiten 2020-2021 ikasturtean. Ikasturte erdia igaro da, eta hainbat liburu irakurri eta aztertu dituzte, eta, zenbait idazlerekin ere egin dituzte solasaldiak. Aurten, Miren Amuriza, Maddi Ane Txoperena eta Miren Agur Meabe izan dira herriko irakurle txokoan. Hileroko saioez gain, urtero ekitaldi berezi bat ere prestatzean dute taldeko kideek: bertso afari literarioa. Aurten, ordea, "ezinezkoa" egin zaie ekintza hori antolatzea. Ez da izan, ordea, saiatu ez direlako.

Xirimiri elkartearen egin izan dituzte orain arteko saio horiek, baina COVID-19ak eragindako egoerak elkarteak ixtea ekarri duenez, saioa ohiko formatuan antolatzekeo ideia baztertu egin zuten. Ez zuten bertso saio literarioerik gabe geratu nahi, ordea, eta kultur etxera jo zuten bertan zein aukera zituzten aztertzekeo eta aitortu dutenez, ez da lan "erraza" izan: "Buelta asko eta buruko min dezente ekarri digu bide hori lantzeak".

Lasarte-Oriako Udalak kultur etxea erabiltzeko jartzen dituen baldintzak ez dira herriko eragileentzat, irakurle txokoaren



lako bertso afari literarioko arxiboko irudi bat. TXINTXARRI

iritziz, "ez behintzat autofinantzatzaren direnentzat". Kultur etxea bera doan erabili daitekeen arren, soinu eta argi teknikariak beti ordaindu behar dira, ekitaldiaren arabera. Gauzak horrela, irakurle txokoaren bertso saio literarioagatik 800 euro ordaindu beharko lituzkela jakinarazi dute.

Kultur etxea doan erabiltzeko, berriz, ekitaldiaren antolatzaileek ezin dute sarrerarik kobratu, beraz, bertsolarien eta idazlearen kostoa estaltzeko diru-sarrerarik ez luke izango taldeak.

Elkarte "oso txikia" izanik, ez du baliabiderik horrelako baldintzetan antolatutako ekitaldi batek sortuko lieken zuloari aurre egiteko: "Erabakia zaila izan da eta saiatu gara azkenera arte, baina aukera guztiak aztertu ondoren, pena handiz, aurten saiorik ez antolatzea erabaki dugu. Ezin dugu".

Azpimarratu dute urtebeteko etenaren ostean, "gogoz eta betiko ilusioarekin" helduko diotela ikasturte berriaren ekitaldi "kuttuna" antolatzeari eta herritarrei euskarazko kultur ekintzetaz gozatzeko deia luzatu diete.

## Hobekuntzak egin dituzte zenbait kirol instalazioetan

Herriko txoko ezberdinetako kirol instalazioetan hobekuntzak egin ditu udaleko kirol zerbitzuak

## Txintxarri

Udaleko kirol zerbitzuek zenbait hobekuntza eta mantentze lan egin dituzte hainbat kirol ekipamenduetan. Trinketeko

erretena aldatu egin dutela jakinarazi dute. Cima Construcciones Metalicas enpresak egin ditu lan horiek, eta 6.841,46 euroko kostua izan

du udalarentzat. Atsobakar kirol anitzetarako pistako zelaiaren lerroak atezaindegiak eta saskiak, berriz, margotu egin dituzte. Ekoloreak Pintura Lanak SL enpresa arduratu da lan horiek egiteaz, eta, guztira, 987,36 euroko kostua izan duela jakinarazi dute.

Zabaletako kirol anitzetarako kantxan ere hainbat izan dira egin dituzten hobekuntza eta mantentze lanak. Ateetako batean,



Lasarte-Oriako Skateboarding Elkartearen logoa. LASARTE-ORIAKO SKATEBOARDING ELKARTEA

## Lasarte-Oriako Skateboarding Elkarteak, desados udalarekin

Udalak Zabaletan eraiki asmo zuen skate parkea aurrekontuetatik kanpo uztea erabaki duela azaldu dute

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Skateboarding Elkarteak udalak Zabaleta auzoan eraiki asmo zuen skate parkaren inguruan hartutako erabakiaren gaineko desadostasuna agertu du. Elkarte horrek jakinarazi duenez, orain egun batzuk herrian eraikiko duten kirolgune berriaren gaineko bilera bat egin zuten udal ordezkariak, eta skate parke berriaren inguruan hartu duten erabaki "tamalgarri" baten berri eman du. Jakinarazi dute skate parkearen eraikuntza aurrekontuetatik kanpo uzteko erabakia hartu duela udalak.

Skate park berriaren proiektua gelditzearen arrazoien atzean, Zabaleta auzoko zenbait bizilagunek proiektuarekiko erakutsi duten desadostasunarekin lotuta dagoela azpimarratu du elkarteak, "ez dutelako proiektu hau auzoko instalazioetan barne sartu nahi". Elkarteak salatu du proiektuaren

inguruan soilik Zabaletako bizilagunei galdetu izana: "Ez dira beraiek soilik izango kirol-instalazio horren erabiltzaileak, Lasarte-Oriako osoko herritarrentzat bideratuta dago proiektua".

Azken urteotan skatearen ospea galdu egin duela mahaigaineratu dute, eta hori horrela gertatzearen arrazoia ere azaldu dute: "Udal erakundearen eskutik skatearekin erlazionatutako instalazioarekiko eta kulturarekiko utzikeria".

Azpimarratu dute baita ere skateboarding bezelako kirolak laguntasuna, iraunkortasuna, errespetua eta lana bezalako baloreak indartzen dituela: "Pertsona askok bizimodu bezala eta adierazpen-askatasun moduan ulertzen dute".

Desadostasuna agertu dute, hortaz, udalak hartutako erabakiarekin, eta datozen egunetan kexa-formal bat aurkeztuko dutela iragarri dute.



Urbarteko kirol ekipamentua. TXINTXARRI

babes-sarearen altuera handitu egin dute. Horri esker, baloiak ondoan dagoen lursail pribatuaren erortzea ekidin ahal izango dute erabiltzaileek. Beste atean, berriz, perimetro-sarearen zenbait zati aldatu eta indartu dituzte, "egoera txarrean" zeudelako. Bi ate horien sareak ere aldatu egin dituztela jakinarazi dute, eta lan horiek guztiak Cercados Sarelan enpresak egin ditu. Guztira 4.977,64 euroko kostua izan dute.

# Bost urrezko domina eta bi zilarrezko, Lasarte-Oriara

Buruntzaldea IKTko bost igerilarik eta Bidasoa XXI taldeko Ainhoa eta Leire Martin ahizpek Euskal Herriko Txapelketan parte hartu dute. Martin ahizpek bost garaipen eta bigarren postu bat lortu dute; beste zilarrezko domina, Buruntzaldea IKTko Nora Imazek eskuratu du

## Txintxarri

Absolutuen Euskal Herriko Txapelketa jokatu zen martxoaren 6an eta 7an, Iruñean. Buruntzaldea IKTko bost igerilari eta Bidasoa XXI taldeko kide diren Ainhoa eta Leire Martin herritarrak lehiatu ziren; larunbatean, emakumeak, eta igandean, berriz, gizonezkoak.

Larunbateko jardunaldian eman zirenen emaitzarik azpimarragarrienak. Ainhoa Martinek hiru urrezko domina lortu zituen; Leire Martin ahizpak, berriz, bi urrezko eta zilarrezko bat eta azken zilarrezko domina, Buruntzaldea IKTko Nora Imazek jantzi zuen.

Martin ahizpek launa probetan parte hartu zuten: Ainhoak 50 m., 100 m. eta 200 m. bular eta 200 m. lau estilo probetan; eta Leirek, berriz, 50 m. eta 100 m. bizkar probetan eta 200 m. eta 400 m. lau estiloetan.

Ainhoak 100 m. eta 200 m. bular probetan 1.12,35 eta 2.32,97 denbora egin zituen, hurrenez hurren eta garaipena erdietsi zuen. Lau estiloko proban, berriz, nagusi izan zen 2.18,65 denborarekin.

Bestalde, 50 m. libre proba seigarren postuan amaitu zuen, 27,52ko denbora eginez.

Leire Martinek, aldiz, 100 m. bizkar eta 400 m. lau estiloak



Nora Imaz, 800 m. libreakin lortutako zilarrezko dominarekin. BURUNTZALDEA IKT

probetan izan zen garaile, 1.05,87 eta 5.11,61 denborekin. Bi urrezko horiez gain, zilarrezko domina bat ere lortu zuen 200 m. lau estiloan proban. Eta 50 m. bizkar proban ederki aritu arren, 30,23eko denbora egin zuen, deskalifikatua izan zen.

Nora Imaz ere podiumean egon zen 800 m. libre proban. 9.53,86 "eder bat" egin ostean, bigarren sailkatu izan zen igerilari gaztea distantzia horretan.

Buruntzaldea IKTko prestatzaile Borja Apeztegiak azaldu duenez, "denbora zeraman Norak distantzia ertain eta luzeetan markak hobetu

nahirik, ondo entrenatzen ari dela jakinda horretarako gaitasuna baduela badaiki-eta. Kosta zaion arren, larunbateko saioan, azkenik bere aurreko marka hobetzea lortu zuen, eta horrekin batera, Euskal Herriko Txapelketan titulua eskuratzea ere bai".

Imazek beste marka bat ere hobetu zuen, 400 m. libre probakoa hain zuzen ere. Marka berria 4.47,97koa da.

## Markak ontzen

Dominarik ez, baina Buruntzaldea IKTko gainerako igerilariak ere

lan ederra egin zuten eta euren markak hobetu zituzten.

Aintzane Sarobek 50 m. libreko marka pertsonala egin zuen (28,20), baita 100 m. bizkar proban ere; azken honetan marka berria 1:10,60an utzi zuen.

Bi proba horietaz gain, 100 m. eta 200 m. libre probetan ere lehiatu zen Sarobe; 1:00,66 denbora eta 2:16,37 egin zituen, hurrenez hurren. Marka pertsonalak egitea lortu ez bazuen ere, proba horietan ere "oso txukun aritu zen", bere erregistro onenetan.

Hori dela-eta, 50 m., 100 m. eta 200 m. libre probetako taldeko 17 urteko errekor berriak ezarri zituen Sarobek Euskal Herriko txapelketan. "Bai 100 metroetako, baita 200 metroetako ere absolutu mailako markatik oso gertu utzi ditu Aintzane", azpimarratu du Buruntzaldea IKTko ordezkariak. "Igerileku luzea pandemiaren geroztik ukitzen duen bigarren aldia dela jakinik ere emaitzak oso positiboak direla uste dugu", gehitu du.

Garazi Etxeberria infantila ere izan zen lehian. "Asko ari da hobetzen aurrean, eta horrek absolutu mailako igerilariekin Euskal Herriko Txapelketa batean lehiatzeko aukera eman dio", nabarmendu du Apeztegiak.

Etxeberriak proba bakarren parte hartu zuen, 50 m. libreakin eta bere marka ondu zuen, 28,82an proba amaituta.

Gazteak estilo bereko 100 metroko probarako gutxienezkoa ere bazuen, "baina aforo kontuengatik serie kopurua mugatua eta ez zen proba horretarako sailkatu".

Mutilei dagokionez, igandean, Unai G. Somovilla eta Eneko Elizasu igerilariak parte hartu zuten txapelketan.

Unai G. Somovilla goizeko saioan aritu zen bakarrik, lehendabizi 100 bular proban eta gero 100 tximeletan. Bi probatan astun eta luze egin zitzaion Iruñako igerilekua Unairi eta bi probetan ere, biak 100 metrokoak izanda, bigarren zatia ondo burutzea asko kostatu zitzaion. Hala ere, tximeleta erako 100 metrokoan marka pertsonala egitea lortu zuen, 1.10,63ko erregistroarekin.

Eneko Elizasu goiz eta arratsalde aritu zen lehian. Goizeko saioan 200 libreakin lehiatu zen eta 2.08,06 eginda marka pertsonala hobetzea lortu zuen, tartean gainera 100 libreko marka berria 1.01,97an utziz. Arratsaldeko saioan Eneko 400 libreakin aritu zen eta proba horretan ere marka pertsonala ondu zuen eta horretaz gain, egindako 4.32,82a taldeko 17 urteko errekorretan sartzea ere lortu zuen.

Buruntzaldea IKTko prestatzaileak nabarmendu du igerilariak egindako lehiaketarekin pozik dagoela. "Emaitzak gora-behera, urte zaila da eta gutxi gorabeherako normaltasun batean baino ez gaudenez, kontestuak baimentzen diguna kontutan izanda, emaitzak onak direla uste dugu".

## Klubak Kopa

Lehia ez da amaitu, ordea. Asteburu honetan, martxoaren 13an eta 14an, Buruntzaldea IKTko taldearentzat neguko hitzordurik "garrantzitsuenak" jokatu dute Iruñen: Gipuzkoako Klubak Kopa. Horretan taldeko kide guztiek parte hartuko dute, "nork bere onena emateko bestelako eskaerarik gabe", adierazi du Borja Apeztegia prestatzaileak.



## AITZOL IRIONDO IARTZA

CENTRE PÉNITENTIAIRE LANNEMEZAN

RUE DES SALIGUES, BP 166

65307 LANNEMEZAN

FRANCE

# Errepideko denboraldia hasi dute txirrindulariek

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako junior eta kadeteek otsailaren 28an izan zuten lehen lasterketa. Denboraldiako lehen lasterketan, Haimar Etxeberriak Udaberri sariko txapelketa jantzi zuen. Bigarren urtea da proba horretan garaile dela

## Txintzarri

Udaberri saria, I. Kia Capdequi Astigarraga saria eta 58. Egia-Zumy saria. Otsailaren 28tik gaur arte, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako junior eta kadete mailako kideek hiru lasterketan parte hartu dute. Hasi da errepideko denboraldia.

Otsailaren 28an hitzordu bikoitza izan zuten eskolako txirrindulariek. Juniorrak Udaberri Sarian izan ziren, Eibarren; kadeteak, berriz, Donostian, I. Kia Capdequi Astigarraga sarian.

Junior mailan, denboraldi berriko lehen garaipena lortu zuen Haimar Etxeberriak.

Iaz ere garaile izan zen proba horretan eta ibilbidea ezagutzen duela erakutsi zuen. Lasterketako lehen erasoetan indarrak gorde eta San Miguel igotzean aurrean zegoen hirukoaren bila atera zen. Mendatean hirugarren izan zen eta jaitsieran Etxeberriak, Zubeldiak, Alustizak eta ordura arte buru izan zen Marcel Palladaresek osatutako laukote



Haimar Etxeberria, podiumeko gorenean urdinez. EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

bat sortu zen. Azken kilometroak elkarrekin egin zituzten eta Azitain poligonoko igoeran Etxeberriak aurre hartu zien guztiei, helmuga lehenengo postuan igaroz.

Etxeberriaz gain, Daniel Fursenko eta Mikel Orbegozo taldeko kideek ere parte hartu zuten lasterketan.

Donostian, berriz, Eneko Aranguren eta Adur Tapiak I. Kia Capdequi Astigarraga sariari egin zioten aurre.

Martxoaren 7an, berriz, Euskal Herria torneoko saioa izan zuten juniorrek, 58. Egia-Zumy saria. Lasterketa honetan talde nagusian iritsi ziren Buruntzazpiko kideak irabazletik ia bi munitura. Guztiek 2.05,38 denbora egin zuten arren, Haimar Etxeberriak seigarren igaro zuen helmuga; Beñat Carbayedak hamabigarren izan zen eta Daniel Fursenkok 29. postuan amaitu zuen lasterketa.

## Intzako banakako pilotariak, ezin ligak garaipenarekin hasi

Lau eta erdi, zein trinketeko lehiak hasi dituzte. Ezker Hormako bikotekako lehiak finalerdia jokatu du Intzak

## Txintzarri

Hilabeteko itxaronaldiaren ostean, Intzako pilotariak buruz buruko lehiaketak hasi zituzten asteburuan. Jon Pello Artetxek eta Haritza Diaz de Guereñuk ezin izan zuten garaipena erdietsi.

Jon Pello Artetxek lau eta erdiko txapelketako lehen mailako partida jokatu zuen Behar Zana elkarteko Urbietaren aurka.

Herritarrek ez zuten partida erregularra egin, Joxe Felix Solano Intzako arduradunaren hitzetan.

"Piloteoan ongi ibili da, baina sakeetako erretoan ez da ongi ibili eta hor joan zaio partida".

Trinketeko lehiak, berriz, debuta egin zuen Haritza Diaz de Guereñu pilotariak kadete mailan. Hernaniko Martin izan zuen aurrez aurre eta 8-30 galdu zuen partida.

Pilota biziarekin jolastu zuten eta horrek Hernaniko jokalaria alde jarri zuen partida. Martin hernaniarrak errebotera bidaltzen zuen sakea eta Diaz de Guereñu herritarrek ez zuten

jakin erasoei nola erantzun. Horrek tanto ugari eman zizkion Hernaniko pilotariari.

Hala ere, jokatu tako tantoetan, Intzako kadete pilotaria ederki moldatu zela nabarmendu du Solanok. "Buruz buru jokatu zituen tantoak, baina sakeak erabaki du partida".

## Finalerdia

Ezker mailako txapelketan, berriz, Intzako bigarren mailako bikotea finalerdietara iritsi da. Errenteriako EPLEko bikotea izango du arerio larunbatean.

Partida irekia espero dute. "Odriozola atzelariak kolpe handia dauka eta Aranburu veteranoa izanik, oso segurua da". Baina Intzako bikoteak lan ondo egiten badu, irabazteko borrokan egongo dela uste du.

## Maialen Chourraut, La Seu d'Urgellen ere garaile

Jokatu diren Espainiako Kopako lau jardunaldietan garaipena erdietsi du Lasarte-Oriako palistak

## Txintzarri

Hamabost urtez La Seu d'Urgellen entrenatzen egon ostean, ongi ezagutzen du Maialen Chourraut herritarrek Segreko parke olinpikoko kanala eta martxoaren 6an eta 7an, bertan antolatutako diren II. Espainiako kopako bi probetan ederki erakutsi du. Bietan nagusi izan da herritarra. Bai sailkapen saioetan, baita finaletan ere denbora onenak egin ditu. Igandean, gainera, kanaleko denbora absolututik gertu ibili zen lasarteoriatarra.



Chourraut, lehian. RFEF

## Finaletan akatsak

Larunbateko sailkapen saioan, lehenengo postuan sailkatu zen, 89,81eko denborari esker. Nahiz eta finalean, hamaseigarren atean akats bat izan eta egindako denborari bi segundo gehitu, 87,80ko marka egin eta urrezko domina jantzi zuen.

Igandeko saioetan azkarrago ibili zen herritarra. Sailkapenean ez zuten akatsik egin, 87,34ko denbora egin zuen. Finalean, ordea, lehen jardunaldiaren antzera, seigarren atean akats

txikia egin eta bi segundoko zigorra ezarri zioten.

Jokatutako bi kopetako garaipenak eta La Seu d'Urgelleko denborak kontuan izanik, Tokioko Joko Olinpikoetarako prestaketa bide onen doala berretsi du herritarrek.

Hala ere, bide horretan hainbat txapelketa gehiago jokatu ahalko ditu Chourrautek. Hala nola, maiatzean, Espainiako III. Kopa; kokalekua zehazteke dago oraindik.



TXINTXARRI

## Ostadarrek, ezin Fortuna garaitu

Ostadar Boleibol taldeak Fortuna A taldearen aurka jokatu zuen Gipuzkoako txapelketako lehen partida. Asier Acuriolak zuzentzen duen taldeak ezin izan zuten txapelketa garaipenarekin hasi eta talde donostiarrak eraman zituen puntuak. Lehen seta erraz irabazi zuen Fortunak sakeari esker, 25-9; bigarrena, berriz, ederki borrokatu zuen herriko taldeak eta 23-25 irabazi zuen. Partida berdindua zirudien arren, hirugarren eta laugarren setean Donostiako taldea gailendu zen Ostadarreko kideen atsekaberako. Horrela, 3-1eko markagailuarekin amaitu zen partida.

# Ostadar Saskibaloit taldeak, berriro lehiara

Gipuzkoako Federazioak denboraldiari amaiera eman dio eta lehiaketa berria jarriko du martxan. Ostadar Saskibaloia ataleko lau taldek parte hartuko dute txapelketa horretan. Junior partizipazio taldeak larunbatean jokatu du lehen norgehiagoka

## Txintxarri

Ostadar SKTKo saskibaloit ataleko taldeek partidak jokatzeari berrekingo diote martxoan zehar. 2020-2021 denboraldia amaitutzat eman du saskibaloit federazioak, eta taldeek "jokatzen jarrai dezaten", lehiaketa berria jarriko du martxan asteburu honetatik aurrera.

"Ez da ezer jokoan egongo, baina errendimenduko taldeetako lehiaketak, Euskal Ligako mailetan gerta daitezkeen hutsuneak betetzeko balioko du. Lehenastuna izango dute", azaldu du Endika Marrahi Ostadar Saskibaloit ataleko arduradunak.

Txapelketa horretan Ostadar SKTKo lau taldek soilik parte hartuko dute lehen mailako seniorra, hirugarren mailako seniorra eta junior mailako errendimendu, zein partizipazio taldeak.

Errendimenduko lehiaketa ez ezik, partidak hamabost egunean behin jokatu dira eta azken jardunaldia, ekainaren 13an izango da. Errendimenduko taldeek, berriz, jarraian jokatu dituzte jardunaldiak eta apirilaren 25ean lauko finala izango da.

## Lehen partidak

Taldeek pixkanaka hasiko dute lehia. Honela, larunbat honetan,



2019-2020 denboraldiko junior errendimendu taldeko partida. TXINTXARRI

10:00etatik aurrera Junior mailako partizipazio taldeak Mondragon Unibertsitatea taldearen aurka jokatu du lehen jardunaldia, Arrasaten.

Junior errendimendu taldeak aste honetan atsedena du eta martxoaren 19an, goizean Goierri UZ Baleike izango du aurrez aurre, Urretxun.

Egun horretan bertan, oraindik zehazteke dagoen senior mailako norgehiagoka egongo da Lasarte-Oriako Maialen Chourraut kiroldegian.

Azkenik, hirugarren mailako seniorrak martxoaren 27an

emango ditu lehen pausok lehiaketan Andraitx KEren aurka. Aste honetan atsedena du.

Ostadar Saskibaloia ataleko arduradunak txapelketa berria "ongi" joatea espero du.

## Gainerako taldeek lehiarik ez

Marrahi pozik dago lehia berrekin ahal izateagatik, baina harrobiak duen etena nabarmentzen du. "Kadete, Infantil, Mini eta Sasi Eskolarentzat itxura txarra du. Espero dugu egoerak hobera egin eta horiek ere partidaren bat jokatu ahal izatea".

# Lasarte-Oriako futbol taldeak, lehiaketa berria jokatze prest

Ekainara arteko txapelketa izango da. Ostadar SKTKo Erregional Gorenak bakarrik izango du igoera jokoan

## Txintxarri

Gipuzkoako Futbol Federazioak martxoaren 2an egin zen Batzar Orokorrean 2020-2021 denboraldiari amaiera eman eta lehiaketa berria martxan jartzea onartu zuen. Ondorioz, asteburu

honetan lehiaketa hasiko dira futbol taldeak.

Txapelketa horretan, talde federatuak bakarrik parte hartuko dute eta hurbiltasuna kontuan hartuta, multzo txikietan banatu dituzte taldeak.

Lasarte-Oriako bi futbol taldeetako ordezkariak jakitera eman dutenez, bat egingo dute txapelketarekin.

Era honetara, Ostadar SKTKo zortzi taldek parte hartuko dute: Ohorezko erregional mailako taldea, 1. erregional mailako taldea, Jubenilen Ohorezko mailako taldea, 1. jubenil mailako bi talde, kadete ohorezko mailako taldea eta 1. kadete mailako bi talde. Ostadar SKTKo koordinatzaile Joxe Pikabeak jakitera eman duenez, Gorengo Erregional taldeak uko egin dio lehiaketan parte hartzeari.

# Ikusleek, berriro ere, zaldilasterketek gozatuko dute

400 pertsonak Hipodromoko negu-udaberriko denboraldiko lehen saioa ikusi ahalko dute

## Txintxarri

Gaur, 10:05ean, hasiko da Donostiako Hipodromoko negu-udaberriko ez ohiko denboraldia.

Denboraldi honetako berrikuntza nagusia ikusleak dira. Neguko denboraldian pandemiaren garapenen aurkako neurriak zirela zirela-eta, zaletuek ezin izan zuten hipodromora hurbildu. Oraingoan, ordea, 400 pertsonek bizi ahalko dituzte zuzenean lasterketak.

Indarrean dauden segurtasun eta osasun-neurriak jarraitu beharko dituzte.

Sarrerak 5 euro balioko ditu 10 urte baino gehiagoko pertsonentzat. Horiek zenbatuak izango dira eta [takemeon.es](http://takemeon.es) orrialdean edo leihatilan aurrez erosi ahalko dira.


## Garaipena Madrilen

Bestalde, Madrilgo Zarzuelako Hipodromoan, Raul Ramos herriarrak garaipen berria eskuratu zuen. Conchita Minguez sarian gailendu zen lasarteoriatarra Ramon Martin Arranz prestatzaile duen White Bay zaldia gidatzen.



# Birtualki ere, arrakasta handia

Lilato lasterketarik izan ez den arren, Euskal Herriko zein nazioarteko hainbat txokotara iritsi da lasterketaren aldarrikapena. Korrika, oinez, ipar marxa eginez, patinetan edo handbikearekin bost kilometroko ibilbidea egin dute 5.700 bat emakume martxoaren 4tik 8ra. Gaur sailkapen ofiziala argitaratu dute Lilatoiko webgunean zozketetako irabazleekin batera; behin-behineko emaitzak zintzilikatu zituzten asteartean eta korrikako sailkapenean Maite Salazar herriarra dago buru.



Futbol partidak itzuliko dira. TXINTXARRI

Texas Lasartearrari dagokionez, kadete mailako taldeak bakarrik parte hartuko du.

Igoera eta jaitzierarik gabeko lehiaketa den arren, Ohorezko erregional mailan igoerako postu bat egongo da jokoan. Beraz, maila horretan diharduen taldeak izango du zer jokatu.

Asteburuan, beraz, Michelingo kirol-gunean futbol norgehiagokak izango dira. Ostadarreko Ohorezko Erregional taldeak, Jubenilen Ohorezko mailako taldeak eta 1. jubenil, zein 1. kadete mailako taldeak izango dira lehiaketa, baita Texas Lasartearra aldeko kadetea ere.

## ZORION AGURRAK



**Nikole**  
Zorionak Nikole! Bi urte jada! Muxu handi bana guraso eta aitona-amonon partez!



**Oier**  
Zorionak Oier!!! Hamalau urte jadanik, jarraitu horren jator! Asko maite zaitugu, Maddi, Unax, aita eta ama.



**Idoia**  
Zorionak Maripili! Bazkaria zure kontu. Meloi, marrubi eta limoizko muxuak. Kuadrilla.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

## Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudiaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 12 ACHA-ORBEA  
LARUNBATA, 13 LASA  
IGANDEA, 14 LASA  
ASTELEHENA, 15 URBISTONDO  
ASTEARTEA, 16 GANDARIAS-URIBE  
AZTEAZKENA, 17 LASA  
OSTEGUNA, 18 DE MIGUEL  
OSTIRALA, 19 DE ORUE  
LARUNBATA, 20 DE ORUE  
IGANDEA, 21 DE ORUE  
ASTELEHENA, 22 GIL  
ASTEARTEA, 23 URBISTONDO  
AZTEAZKENA, 24 ACHA-ORBEA  
OSTEGUNA, 25 URBISTONDO

**EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**

Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## JAIOTAKOAK

**Oihan Ituarte Martinez.** Martxoaren 5ean.

**Anje Valin Camino.** Martxoaren 2an.

**Liam Gabriel Pereira.** Otsailaren 27an.

## HILDAKOAK

**Jose Luis Jimenez Mateos.** Martxoaren 8an.

## OHARRA

## Odol ateratzeak

Lasarte-Oriako odol emaileek martxoaren 30an dute hileroko hitzordua. Antonio Mercero aretoan, arratsaldeko 16:30etik 20:10era odol ateratzeak egingo dituzte.

Odola eman nahi duten herritarrek aurrez izena eman behar dute 943 00 78 85 telefonora deituz.

Elkarteko kideek emaile ez diren herritarrak gonbidatu nahi dituzte odola ematera, odola beharrezkoa baita.

## SUDOKUA

3						1	4
		4		5	1	8	
	8		3	4	7		2
			9	8	3		7
		3				2	1
		5	1	2			
	9	1	4		2		
4	2		5				7
	3					4	6

## AZOKA TXIKIA

## LANA

## ESKAINZA

Biyak Bat adinekoen egoitzak bi langile behar ditu: podologo bat eta gizonezkoen ile-apaintzaile bat. Gainera, taberna kudeatzeko langileak ere behar dituzte. Interesatuak egoitzara hurbildu behar dira asteartean eta ostegunetan 10:30etik 12:30era.

## ESKARIA

Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko eskaintzen dut nire buruak. Paperak eguneratuta dauzkat. Harremanetarako zenbakia, 651 51 92 69.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketara... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketara.

Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. Harremanetarako zenbakia, 630 68 27 16.

Neska euskaldun bat eskaintzen da astean bi egunetan eta arratsaldean etxeko lanak egiteko edota umeak zaintzeko. Harremanetarako zenbakia, 646 48 58 11.

Haurrak zaindu, etxeko lanak egin, orduka pertsona adinduek zaindu

edo tabernetako garbiketa lanak egiteko pertsona eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Pertsona eskaintzen da etxeko garbiketa lanak egin, leihoak garbitu, adineko pertsonak paseatzeko edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Harremanetarako zenbakia, 619 35 58 19.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduek zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

## SALEROSKETA

## SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazua + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

## TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

## TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEA: 607 625 233

## LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZAK: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

txintxarri

www.txintxarri.eus

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

## Administrataria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

## Banatzaileak

Julene Iraola, Uxue Odriozola,  
Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza,  
Iker Lanchas, Iñigo Garcia,  
Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

## Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

## PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

## EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

## Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.350 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 12

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Bizipoza Lasarte-Oriatik Lesbosera ekimenak Lesbosera errefuxiatuen kanpamentuko egunerokoaz sentibilizatu eta bizi duten egoera latza salatzen du. Argazkiak Miiren Bardaji herritarrenak eta Yousef Alshewailik errefuxiatuak ateratakoak dira. Martxoaren 14 arte.

Antonio Mercero aretoa, astegunetan 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan, 11:00etatik 13:00etara.

## LARUNBATA 13

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Ganso & Cia antzerki taldeak familiei zuzendutako *Alpha* antzerkia eskainiko du. Sarrera, 3,80 euro. Manuel Lekuona, 17:00etan.

### HERNANI Antzerkia

Titirigui teatroak familiei zuzendutako *Oilar bat dago zure teilatuan* antzerkia eskainiko du. Sarrera, 3 euro.

Biteri kultur etxea, 12:00etan.

## IGANDEA 14

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Anita Maravillas taldeak mende hasierako ehungintza industriari inspiratutako *Kotondarrak* txotxongilo antzerkia eskainiko du. Sarrera, 4 euro.

Bastero kultur gunea, 17:00etan.



**LASARTE-ORIA Antzerkia.** Etxeko txikiek eta ez hain txikiek Ganso & Cia antzerki taldearen *Alpha* lanaz gozatuko dute. Lo egiten dugunean, gure subkontzientek atea erdi zabalik uzten du, bidea libre utziz amets ilunei, ahaztutako oroitzapenei edota nahi gabeko fantasiei. *Alpha* lanak kontzientziatik ametsen mundura igarotzeko uea isladatzen du. Bere fantasien biktima den pertsonai baten bizipen komikoak kontatzen ditu. Era honetara, beldur eta sentimendu unibertsalei buruz barre egiteko aukera eskaintzen die ikusleei. Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata, 17:00etan.

## OSTEGUNA 18

### LASARTE-ORIA Liburu aurkezpena

Pablo Barrio idazleak *El Sitio del Fin del Mundo* liburua aurkeztuko du. Antonio Mercero aretoa, 19:00etan.

## LARUNBATA 20

### LASARTE-ORIA Ikus-entzunezkoa

2021. urteko Bilboko Gaylesbitrans nazioarteko zinema eta arte eszenikoaren jaialdiko laburmetraien emanaldia izango da. Eskainiko diren lanak honakoak dira:

- *Leo y Álex en pleno Siglo XXI.*
- *La amante.*
- *Mall.*
- *Red Bay.*
- *Karaoke.*
- *Hemen. Gaur. Berriz.*

Sarrera doakoa den arren, edukiera murriztuagatik, gonbidapena behar da. Gonbidapenak Manuel Lekuonako harreraren egongo dira eskuragai.

Lasarte-Oriako Udalak antolatutako Emakumeen Nazioarteko gitarraren barruko ekitaldia.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**The Father (JBGA)**  
Ostirala: 19:00.

#### El Padre

Igandea: 19:00.

**Kranston ikastetxea:  
Munstroen eskola**

Igandea 21: 17:00.

#### ANDAIN

#### BASTERO

**Entre nosotras**

Larunbata: 19:00.

Igandea: 19:00.

Astelehena: 19:00.

### Raya y el último dragón

Ostirala 19: 16:30

Larunbata 20: 16:30.

### Non dago Mikel?

Ostirala 19: 19:00

### Pequeños detalles

Larunbata 20: 19:00

### HERNANI

#### BITERI

#### Martin Eden

Larunbata: 19:00

Igandea: 19:00.

Astelehena: 16:30.

#### Mi amigo Poly

Larunbata: 16:00.

Igandea: 16:00.



## LABURPENA

### The Father/El padre

**Zuzendaria:** Florian Zeller. **Gidoia:** Florian Zeller eta Christopher Hampton. **Argazkia:** Ben Smithard. **Musika:** Ludovico Einaudi. **Herr.:** Erresuma Batua (2020). **Antzezleak:** Anthony Hopkins, Olivia Colman, Imogen Poots, Rufus Sewell, Olivia Williams, Mark Gatiss, Evie Wray, Ayesha Dharker. **Iraupena:** 97 minutu.

## Zahartzaroko dementzia pausoz pauso

*The Father* filma ikusteko aukera bikoitza izango da asteburuan. Ostiralean, Okendo zinema taldearen Zine-forumaren eskutik, jatorrizko hizkuntzan eskainiko da. Gaztelazko azpidatziak izango ditu.

Florian Zeller berak idatzitako antzerki lanean oinarritutako filma da *The Father*. 2020 urteko Sundance zinema jaialdian aurkeztu zen eta nazioarteko jaialdietan eskaini dute kritika onak jasoaz.

Filmak hainbat sari ere eskuratu ditu. Donostiako Zinemaldiko azken

edizioan ikusi ahal izan zen eta bertan ikusleen saria eskuratu zuen. Berriki Europako film onenaren Goya saria ere lortu du.

*The Father*-eko protagonista Anthonyk (Anthony Hopkins) ia 80 urte ditu eta bakarrik bizi da Londresen duen apartamentuan. Bere alaba Annek (Olivia Colman) Parisera bizitzera joatea erabaki du eta bera zainduko duen erizain bila dabil. Hainbat aurkeztu dizkio aitari; Anthonyk, ordea, ez du bat ere onartzen. Laster ikusiko da errealitatea gero eta modu nahasgarriagoan hautematen duela Anthonyk.

## Emakume pirata baten gaztaroko abenturak

Pablo Barrio herritarrek *El Sitio del Fin del Mundo* eleberria argitaratu berri du, Txertoa argitaletxearekin –beste lasarteiatar bat da arduraduna, Martin Anso–. Marxoaren 18an, ostegunarekin, aurkeztuko du Antonio Mercero aretoan, 19:00etan.

Liburuan emakume pirata batek gaztaroen bizi izan zituen abenturak kontatzen ditu, umore eta punk ukituarekin. "Eleberriak gore ukitu bat ere badaukala esango nuke, eta komikiaren tonura hurbiltzen dela", adierazi zuen prentsari egindako aurkezpenean.

Hori dela eta, piratei buruzko istorioen hainbat elementu jaso ditu alegia literario horretan,

hala nola abordaiak, borrokak, akzioa... Beste batzuk, ordea, berritzaileagoak dira, kontakizunaren protagonista emakumezkoa izatea, esate baterako.

Horrez gain, estilo ugari uztartu ditu eleberria idazterakoan: narrazioa, antzerkia eta poesia erabili ditu kontakizuna harilkatzeko.

Eleberri honen bitartez, omenaldi bat egin nahi izan die idazleak Donostiako Piratei eta Aste Nagusiari. Gainera, La Flamenka izeneko taberna bat existitu zen XVII. mendean, eta horri ere keinu bat egin nahi izan dio lasarteiatarrek

Aurkezpenean, idazleaz gain, Tasio Arrizabalaga eta Intza Alkain herritarrek ere parte hartuko dute.

COVID-19aren aurkako segurtasun neurriak direla eta, edukiera mugatua izango du aurkezpenak. Hortaz, ekitaldira joan nahi duten herritarrek aurrez izena eman beharko dute, 689 71 90 36 telefono zenbakira deitu edo Whatsapp mezu bat bidalita.

Aurkezpenaren aurretik liburuari buruz gehiago jakin nahi duenak Euskadi Irratiko *Baipasa* saioan, TXINTXARRI aldizkariaren eskutik, Pablo Barriori egindako elkarrizketa entzun dezakezue honako loturan: <https://labur.eus/SORnR>.



Egilea: Pablo Barrio.  
Argitaletxea: Txertoa.  
Orralde kopurua: 188.

# LASARTE-ORIA

## GREMIOEN GIDA

Arreta profesionalena, herrian bertan!



Herriko GIDA KOMERTZIALA  
sarean ikus dezakezu  
[www.txintxarri.eus/gida](http://www.txintxarri.eus/gida)

 Barne-Diseinua

 Iturgintza

 Igeltseritza

**SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
  - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943 361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)

**ILLARRETA**  
ITURGINTZA  
IGELTSEKITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52.  
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga  
[info@illarreta.com](mailto:info@illarreta.com)

ANTONIO ARREGUI, S.L. **AA** eraikuntza materialak  
IGAMIA

- ERAIKUNTZA MATERIALAK OROKORREAN
- ZERAMIKA
- SANITARIOAK
- KOMUNEKO KONPLEMENTUAK

[www.gamma.es](http://www.gamma.es)

BILTEGI OROKORRA ERAKUSKETA  
Oria Etorbidea, 6 Goikale, 2  
20160 Lasarte-Oria 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 36 64 73 Tel.: 943 36 59 47  
[aarreguis@gmail.com](mailto:aarreguis@gmail.com) Faxa: 943 36 59 47

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

 Elektrizitatea

 Kristaldegia eta leihoak

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21  
600 857 586 - [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com) (on-line denda)

**ANORGATXIKI S.L.**  
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943 37 17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)

**ISU**  
PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak, barandak, toldoak, armairuak, eltxo sareak eta gehiago...

Kale Nagusia, 46 behea. LASARTE-ORIA  
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala USURBIL

☎ 943 366 495  
[ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com) 

Gida honetan azaldu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:  
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)  
Hurrengo GREMIOEN GIDA apirilaren 23an kaleratuko dugu